

## **Bilbok bi autobus Irizar i2e %100 elektriko izango ditu**

*Ormaiztegin, 2016ko abenduaren 22an*

### **Gaurtik aurrera Bilbok bi autobus berri %100 elektriko izango ditu, Irizar i2e-ak.**

Autobus hauek Bilbobuseko gainerakoei gehituko zaizkie eta hainbat lineatan emango dute zerbitzua.

Bi autobus berriak Irizar i2e dira, %100 elektrikoak, zero igorpenekoak eta 12 metro luze, eta energia kontsumoa optimizatzeko diseinatu dira. Bilbobusen hiriko autobusen prestazioak hobetuko dira autobus horiekin.

Ibilgailuak erabat isilak dira eta ez dute kutsadurarik igortzen. 200 kilometro baino gehiagoko autonomia dute eta Sodio-Nikelezko bateriak dituzte, motor elektrikoari energia emateko. 1500 Nm-ko trakzio pare nominala lortzen dute, 180 kW-ko potentzia. Ibilgailuak balaztatzearen energia leheneratzen du energia elektriko bihurtuta eta horrek baterien autonomia handitzen du.

Bilbobusek eskatutako erosotasun, irisgarritasun eta segurtasun elementu guztiak edukitzeaz gain, USB kargadoreak dituzte, eta baita flotak ondo kudeatzeko sistema guztiak ere.

Gainera Irizarrek hornitu ditu karga estazioak eta autobusek karga adimenduna egiteko zentrala, Jemak garatutakoa (Irizar Taldeko enpresa) eta elektrizitate kontsumoa automatikoki kudeatu eta optimizatzen duena.

Alfonso Gil Bilboko Udalaren Zirkulazio, Garraio eta Ingurumen Saileko zinegotzi eta alkateordeak esan duenez, *"Bilbobus izan da lurraldean ibilgailu elektrikoak izango dituen lehen garraio publikoko zerbitzua. Berriz ere, berrikuntza teknologikoaren abangoardian dago, hobekuntza etengabea izanik eta lurraldeari bultzada emanez. Bilboko Udalak badu konpromisoa hartuta ingurumenarekin, jasangarritasunarekin, ingurumenean eragin negatiboa gutxitzeko konponbideak bilatu eta abian alternatiba jasangarriak jartzearekin; eta ekimen hau dugu horren adibidea"*

## **Irizar i2e, Irizar Taldearen autobus %100 elektrikoa**

Europar teknologiarekin garatu eta fabrikatua eta bizitza zikloaren ikuspuntuarekin, Irizar i2e Taldeak berrikuntzaren alde egiten duen apustu estrategikoaren emaitza da, hiri barruko garraio iraunkorren erreferente bihurtzeko helburua baitu.

Irizar i2e-ak hiri mugikortasunari irtenbide jasangarria eta ekoefizientea eskaintzen du, gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko. I2e autobusak karbono aztarna oso txikia uzten du, 8,45 gr CO<sub>2</sub> eq/km.p (egindako kilometroak pertsonako) Ohiko autobus batekin alderatuz gero 800 tona CO<sub>2</sub> isurtzea saihesten da autobusaren bizitza zikloan zehar

## **Efizientzia eta autonomia bermatzeko frogak**

Jasangarritasunaren aldeko konpromiso sendoa duten Europako hainbat hiri garrantzitsuk dagoeneko beraien lineatan autobusak dituzte datu eragiketa-datu arrakastatsuekin, adibidez, Donostia, Bartzelona, Bartzelonako metropoli-barrutia, Valentzia, Londres eta orain Bilbok.

Nabarmentzekoa da sei Irizar i2ek Frantziako lehen linea %100 elektrikoa osatzen dutela Marseillan. Gaur egun, erabiltzaileen gogobetetze maila %99koa da.

Gainera, beste hiri batzuetan proba arrakastatsuak egin dituzte ibilgailu hauekin, esaterako Baiona, Paris, Niza, Madril, Malaga, Le Havre eta Grenoblen, eta gehiago ere izango dira laster.